



**Prensa oharra**

**Elkartasunerako duen borondatea aitortu diote**

**ELIKAGAIEN BANKUAK 2014KO URREZKO GALBURUA EMAN DIO EROSKI-RI**

- **Elikagaien Bankuaren sairik handiena da, soberako elikagaiak birbanatzen nabarmentzen diren erakundeei ematen diena**
- **Hemezortzi urte dira EROSKI eta Elikagaien Bankua elkarlanean aritzen direla**
- **EROSKI da Espainiako banatzaile enpresa bakarra elikagaien 'Ez alferrik galdu' kanpainarekin konpromisoa hartua duena.**

**Madril, 2014ko urriaren 17a.-** [EROSKI](#) ostegunean jaso zuen Urrezko Galburua, [Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak](#) (FESBAL) soberako elikagaien banaketa solidarioan laguntzen nabarmentzen diren erakundeei ematen dien saririk onena. Agustin Markaide EROSKIko presidentek jaso zuen saria FEGA Nekazaritza Bermearen Espainiako Funtseko presidente Ignacio Sanchez Estebanen eskutik, Madrilen dauden Europako Erakundeen Egoitzan egindako ekitaldi batean. Ekitaldian izan ziren federazioa osatzen duten 55 elikagaien bankuko ordezkariak.

*"EROSKIren eta haren bezeroen izenean, eskerrak eman nahi dizkizuet hemezortzi urte honetan guztion artean egin dugun elkartasun lanaren aitortzagatik",* esan du Agustin Markaidek. Era berean, EROSKIko presidentek nabarmendu du inportantea dela boluntarioek berek eman izana saria; izan ere, eskuzabaltasunez banatzen dituzte jasotako elikagaiak behartsuenen artean, eta eskerrak eman dizkie lan altruista horregatik. *"EROSKI gure izaera kooperatiboari atxikia dator elkartasuna. Erakunde guztiak hartu du 'Ez alferrik galdu' kanpainako konpromisoa, kontsumitzeko on den elikagairik ez botatzeko eta behartsuenen artean banatzeko", amaitu du.*

*"Funtsezkoa da EROSKIrekin lankidetzan aritzea, soberako elikagaiak biltzeko. Gero biltegi batera eramaten ditugu, eta han behar bezala egoten dira, laguntza soziala ematen duten erakundeek bana ditzaten",* azaldu du Nicolas Palacios, FESBALeko presidentek. *"EROSKI lehenetarikoa izan zen elikagaiak biltzeko kanpainetan. 1996. urtean hasi zen saltokietatik erretiratutako elikagaiak dohaintzan emateko programa batean, eta gero elikagai freskoen donazioan. Gaur egun, konpromisoa zabaldu du, eta elikagaien 'Ez alferrik galdu' kanpainan dihardu",* esan du.

**Hemezortzi urte elkarlanean**

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[www.eroski.es](http://www.eroski.es) > [Notas de prensa](#)  
[www.consumer.es](http://www.consumer.es)



1996an hasi zen EROSKI Elikagaien Bankuarekin lankidetzan, Bizkaiko Elikagaien Bankuak proposatuta eta kontsumitzaileek berek eskatuta behartsuen eta bazterkeria soziala jasateko arriskuan direnen kolektiboari elkartasuna erakusteko. Hala, urte horretan bertan hasi zen Kilo Operazioa, elikagaien bilketa kanpaina, EROSKIko dendetan.

Gero, EROSKI martxan jarri zuen kontsumitze data hurbil zuten baina oraindik ziurtasun osoz jateko onak ziren elikagai ontziratuen donazioaren programa. EROSKIren programa honek eta Elikagaien Bankuak jarraitzen dute hemezortzi urteren ondoren 'Ez alferrik galdu' konpromisoarekin, jateko on den elikagairik ez botatzeko bere hipermerkatu eta supermerkatu sare guztian.

Berriroago, krisi ekonomikoaren lehen ondorioak hastearekin, EROSKI eta Elikagaien Bankuak elikagai freskoetara zabaldu zuten programa hau; horretarako, beharrezkoa izan zen donazio logistika berriz definitzea, hotz kateari eusteko eta ziurtatzeko elikagaiak segurtasun osoz ailegatzen direla hartzaileengana.

### **'Ez alferrik galdu' konpromisoa**

EROSKI konpromiso sendoa du gauzak alferrik galtzearen kontra; hala, 2013an, Espainiako lehen banatzaile katea izan zen, 'Ez alferrik galdu' bere hipermerkatu eta supermerkatu sare guztira banatzen.

'Ez alferrik galdu' programa aurrera ateratzeko, EROSKI ekintza protokolo bat garatu du, elkartasun taldeei emandako elikagaien segurtasuna ardura handiz zaintzeko eta janari freskoei dagokienez hartzailearen entitatean ere hotz kateari behar bezala eusten diotela ziurtatzeko; izan ere, horrek ere berme berak bete behar ditu garraioan eta instalazioetan.

EROSKI baldintzarik onenetan dauden produktuak soilik eskaintzen dizkie bezeroei. Elikagai freskoren batek freskotasuna zertxobait galdu badu edo ontziren bat ez badago behar bezala (kolpetxo bat duelako, adibidez, edo bilgarria apurtu zaiolako), kendu egiten ditu saltokietatik, eta programa honetan parte hartzen duten erakundeei ematen dizkie. EROSKI emandako elikagai guztiak beti daude iraungitze edo kontsumitze dataren barnean, eta kontsumitzeko egoera ezin hobean.

## **FESBAL - Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioa**

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[www.eroski.es](http://www.eroski.es) > [Notas de prensa](#)  
[www.consumer.es](http://www.consumer.es)



FESBALEk Espainia guztiko 55 elikagai banku ordezkatzeko dituzte. Irabazi asmorik gabeko erakundeak dira, 2.700 boluntarioz osatuak, elikagaiak biltzeko, biltegiatzeko eta ongintzako erakunde ofizialei banatzeko. Gaur egun, federazioko tokiko erakundeen bitartez, 8.386 ongintzako entitate artatzen ditu FESBALEk, eta Espainiako milioi bat eta erdi behartsuri baino gehiagori laguntzen die hala.

## **EROSKI**

EROSKI 2.069 saltoki baino gehiago ditu: EROSKI hipermerkatuak, EROSKI/center supermerkatuak, Caprabo eta EROSKI/city eta Aliprox, on line dendak, EROSKI/Bidaiak bulegoak, gasolindegia, optikak, Forum Sport kirol dendak, IF lurrindendak eta 21 plataforma logistikoa.

Hasieratik ari da EROSKI gizarte ekintza askotan, bereziki bizitza ohitura osasungarrien promozioan, kontsumitzailearen hezkuntzan, ingurumenaren defentsan eta behartsuen eta bazterkeria arriskuan direnen kolektiboarenganako elkartasunean. EROSKI sortuz geroztik ari da elkartasun programa bat garatzen, gizarte bidezkoago eta kohesionatuago baten alde.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[www.eroski.es](http://www.eroski.es) > [Notas de prensa](#)  
[www.consumer.es](http://www.consumer.es)